

noaia

**N634 errepideko lanak
hiru hilabetez luzatuko dira**

**Aste honetako aldizkariarekin
batera Amona Tomaxaren
abentura berri bat jasoko
duzue opari**

**Igande honetan Sutegin:
“Koko, dragoi txikia oihanean”
haurrentzako filma**

LUZE EDO MOTZ

**“Gure onena ematera
ateratzen gara saio bakoitzean”**

4

3





Andatza
KARROZERIA **USURBIL**

943 36 36 77  622 18 58 99

ORDUTEGIA: 09:00-13:00 15:00-19:00

EZAGUTU ITZAZU GURE ZERBITZUAK!!!

KARROZERIA MOTA GUZTIETAKO ERREPARAZIOAK

·AUTO-ARGIEN LEUNKETA

·AUTO-BEIRAREN ORDEZKATzea

·LAPURKETEN KALTEEN KONPONKETA

car.andatza@gmail.com   car.andatza errota berri kalea 9 Usurbil



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



ikusgaitzak

Ezin dira euren familian hazi, eta harrera-familia baten beharra dute. Eta ikusten ez duguna existitzen ez denez, aurpegi eta begiak jartzea erabaki dugu.
Lagundu gaitzazu 60 harrera-familia aurkitzen.

gipuzkoa.eus
Erakutsi dezagun Gipuzkoaren aurpegiarik onena.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ORAIN**
Es futuro

Albisteak iruditan

N634 errepideko lanak hiru hilabetez luzatuko dira

Datozen hilabeteetan, errei bakarria egongo da zabalik Troia eta Txikiardi artean, N634 errepidean. Pareta egonkortzeko lanak egin behar dituzte eta Foru Aldundiak aditzera eman duenez, “hiru hilabetez luzatuko dira obrak”.

Lanak amaitu bitartean, errei bakarria egongo da erabilgarri, “eta behin-behineko semaforoak jarriko dituzte, une oro: asteburuak eta gauak barne”, Udalak ohar bidez aditzera eman duenez.

Troia pareko pasabideko semaforoa deskonektatu egingo dute

Oinezkoek bertatik pasatzeko aukera izaten jarraituko dute, “baina orain arte



Trafikoa zuzentzeko behin-behineko semaforoak jarriko dituzte, “asteburuak eta gauak barne”.

autoen eta oinezkoen arteko zirkulazioa bideratzen zuen semaforoa desko-

nektatu egingo du Aldundiak”, Udalak jakinarazi duenez.

Laburrean

Eremu laranjan, 443,18ko intzidentziarekin

443,18ko intzidentziarekin eremu laranjan zen Usurbil astelehenean. Iragan aste osoan zehar 16 Covid-19 kasu izan genituen. Azarora hasi zenetik 69 zenbatu ditu Osasun Sailak.

Gripearen aurkako txertoa

Iaz baino %50ak gehiagok jarri du gripearen aurkako txertoa aurten. Kanpaina beste 3 astez luzatuko da gutxienez. Hitzordua hartzeko anbulatoriora deitu; 943 36 20 13.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaueus /// www.noaueus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Diseinua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaueus

Banaketa:

Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia:

Antza. Zirkuitu

lbilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:

erredakzioa@noaueus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Ugaitz Agirre Zapirain

Heroiak I

Haur txikiak beti izan ohi dituzte euren heroi propioak. Aldizkarietan agertzen ziren kazetariak egiten zizkien elkarrizketak, egunkarietan burutu berri zituzten onegiteei buruz mintzatzen ziren. Haur denek izan nahi zuten heroi, eskolan, handitan zer izan nahi zuten galdetzen zieten bakoitzean.

Mikel ezberdina zen. Nahiago zuen Orhi peko belazeetan artaldearen zaintzan jardun, handik hona ibili ezere atzetik eta, bat-batean, ezustekoa begien aurrean azaldu. Amets txikiak bizi zituen Nafarroako Pirinioetako bere mundu partikularrean. Eguzkiak ekialdetik esnatzea, errekastoan igel batek jauzi egitea, elur egunetako goxoa sutondoaren ondoan. Handik harago kokatzen zen guztia urrunean zegoen, eta heroiak hiriburuan kokatzen ziren, Iruñean.

“Egunen batean Iruñera joan behar dugu eta inoizko heroirik ospetsuenak eta aberatsenak bihurtuko gara”, behin eta berriz esaten zion Peio lagunak.

“Zuk ez zenuke lehenengo azterketa ere pasako heroi izateko kokoloa”, erantzun ohi zion Maialenek gehituz bera izango zela denetan indartsuena.

Irakasleak makilarekin kol-



“Mikelek amets txikiak bizi zituen Nafarroako Pirinioetako bere mundu partikularrean”.

UGAITZ AGIRRE

“Mikel ezberdina zen. Nahiago zuen Orhi peko belazeetan artaldearen zaintzan jardun”

pe bana eman eta klasean arreta jartzeko agintzen zien, utz zitzatela behingoagatik heroiak ametsak eta gisako txatxukeriak. Bi haiek heroi izatearen ideiatik aldenduko zituenik ez zen jaio, ordea.

Hainbat gurasok mendialdeko euren seme-alabak behin 12 urte bete orduko, heroiaren azterketa egitera bidali ohi zituzten, batez ere irtenbide bat baitzen inguru haietako pobrezia eta langabeziatik ateratzeko. Gaindituz gero, estatuaren parte bihurtzen ziren eta aurrera egiteko baliabideak ugaritzen zitzaizkien gehienetan ahaztuz nondik zetozen. Hala ere, gain-

ditu ezean esklabo bihurtzen ziren.

Iruñera bidali zuen aitak egun batez, urteko merkatuan saldu zitzaizkien gazta eta ardikiak. Bide luzea zuen aurretik, eta Erronkari bailara atzean uzterako elkartu zitzaizkien bidaide Maialen eta Peio euren heroi moztarokien.

“Zergatik ezin zarete pertsona normalak bezala ibili?”, kexu zen Mikel. Efektu eskasa zuten bere hitzek, ordea.

“Eta bide-lapurren bat azaltzen bazaizu?”, “Eta astoa galtzen baduzu lo egiten duzun bitartean?”, “Eta putreak etortzen badira eta erasotzen badi-zute?”...

“Putreak sarraskia bakarrik jaten dute, ez al dakizue hori?”

Bidaia luzea horrela joan zen, eta Mikeli gustatu ohi zitzaion bidaia bakartia, anabasa eta jolasean bilakatu zen. Hasieran pixka bat molestatu

bazion ere, azkenerako harekin gozatza iritsiz. Ahaztu eta dena egin ziren zertara atera ziren bidaia hartan, eta bat-batean Peioren aipamen batengatik Iruñera berandu iritsiko zirela ohartu zen.

Iritsi ziren izerdi patsetan. Iritsi ziren eta merkatu nagusia jasotzen ari ziren dagoeneko. Hura amorru garrasiak Mikelenak kulpa guztia bere bi lagunei botatzeagatik heroietara jolastera ibiltzeagatik. Kale izkina batean gelditu ziren hirurak eta astoa etxeko produktu guztiak saskian ziztuztela eta orduan, gizon handi bat agertu zitzaizen parean.

“Zuek ez zarete hemengoak? Laguntzarik behar al duzue?”

Bi lagunak harri eta zur zeuden. Aurrean zuten gizontzarrak Xan heroiak zen, heroieta heroiak, Super aldizkariak izarra, denek miresten zuten heroiak. Horregatik, ez Maialen eta ez Peio ez ziren gai hitz bat bera ere ahoskatzeko. Mikelek esan zion berandu iritsi zirela merkatura eta ezin izan zuela berriz ere Erronkari ibarrrera produktu haiekin guztiekin itzuli. Gazta zati bat probatzeko hartu eta gero, urte eta zilarrez betetako zakutoa atera zuen eta dena erosi zion kolpean. “Beti laguntzeko”, erantzunez joan zen.

Egun hartan erabaki zuen Mikelek heroi izan nahi zuela.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Lourdes Jauregiberri, EAJko Gipuzko Buru Batzarrean

EAJ-PNVko Herrialde Batzarrak Gipuzko Buru Batzar “eraberri-tua eta eskarmentuduna” izendatu berri du. Datozen lau urteetan Lurralde Zuzendaritzako buru Joseba Egibar izango da, Batzarrak aho batez babestuta. Presidenteaz gain, Uri Batza-

rretako ordezkariak hamalau burukide aukeratu dituzte. “Eskarmentua duten andre-gizonak osatzen dute, parekidea da, euskalduna eta Gipuzkoa guztiko ordezkariak daude”, EAJk aditzera eman duenez. Tartean izango da Lourdes Jauregiberri.

“Behar-beharrezkoa da errealitate berria gizarte-justizian, hazkunde ekonomikoan, elkartasunean eta askatasunean oinarrituz eraikitzea”, azpimarratu zuen Joseba Egibarrek GBBko presidente izendatu berrian.



Beste lau urtez egongo da GBBn.

Odol Emaileen elkarteak bertan behera utzi du abenduaren 8ko ospakizuna

Abenduaren 8ko “ospakizunik ez dugu izango aurten”. Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteko ordezkariak ohar bidez jakinarazi dute. Urtea ez da erraza izan eta horregatik urtean zehar odola ematera hurbildu diren guztiei eskerrak eman nahi dizkiete.

2020. urtea betiko martxan hasi zuten. Lehen bi odol-emaiteak anbulategian antolatu zituzten. Covid-19 birusa agertu zen eta maiatzetik aurrerakoak Udarregi ikastolako patioan egin behar izan dituzte. “Aurten bizi dugun egoera dela eta, odol-emaiteak ez dira ohikoak izan”, Usurbilgo elkarteko kideek aditzera eman dutenez. “Orain Donostiatik deitzen zaie odol emaleei, ordua eta tokia zehaztuz. Pilaketak izan ez daitezten, orduko 6 edo 7 pertsona deitzen zaie”.

Hala ere, 211 odol-emaite egin dira aurten, “eta horietatik 117



Iazko urrikoa da argazkia. Oria Behea eskualdeko odol emaleen elkarteak batu zirenekoa.

ODOL EMAILEEN ELKARTEA

Odol-emaiteak ez dituzte eten. “Pandemia garaian ere odola beharrezkoa da”

usurbildarrenak izan dira”. Datorren urtean ere martxa

honetan jarraituko dute. Eguna eta lekuak zehaztu gabe daude hala ere. “Deia jasotzen dutenei, odola ematera hurbildu daitezela animatu nahi ditugu, pandemia garaian ere odola beharrezkoa delako. Laguntzera joaten garenok ezin-

go gara bertan egon eta, lerro hauetatik, eskerrak asko emale guztiei”.

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteko kideek, azkenik, eskerrak eman nahi dizkiote Usurbilgo Udalarari, ikastolako espazioa eskaintzeagatik.

2021erako udal aurrekontuak tramitazio bidean

Urte amaierarako hasieraz onartu asmo ditu udal gobernu taldeak, 2021erako udal aurrekontuak. Hemen duzue gai honek asteotan jorratuko duen tramitazio bidea, Udalak finkatu duen egutegia:

■ Abenduak 1: oposizioak kideentzako aurkezpena Ogasun Batzordean.

■ Abenduak 9: herritarrei zuzenduriko aurkezpena 18:30etan Potxoenean. Beratarazeko izena eman aurrez komunikazioa@usurbil.eus helbidean.

■ Abenduak 15: oposizioak ekarpenak egiteko azken eguna.

■ Abenduak 18: udal aurrekontuak diktaminatzeko ezohiko Ogasun Batzordea.

■ Abenduak 23: aurrekontuak hasieraz onartzeko ezohiko udalbatzarra.

■ Hasierako onarpenaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, 15 lan egunez alegazioak aurkezteko aukera.

■ Halako ekarpenik ez bada, urtarilla amaieran behin betiko onarpena.

2021eko ordenantza fiskalen egutegia, hasieraz onartua

Covid-19aren eraginez bizi dugun ezohiko egoera dela eta, 2021eko ordenantza fiskaletan igoyerarik ez aplikatzea eta 2020koei eustea erabaki du Usurbilgo Udalak. Ondorioz, beste urteetan ez bezala, oraingoan gai hau osoko bilkura batera eraman eta onartu beharrik ez dute izan.

Ordenantza fiskalok noiz kobratuko dituzten bai; urtero moduan, zerga hauek noiz

ordaindu zehazten duen datorren urteko egutegia hasieraz eta gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak azaroaren 26ko osoko bilkuran; EHBilduk eta EAJ-k alde bozkatu zuten. PSE-ko udal ordezkaria abstenitu zen. Egun gutxi barru Udalak argitara eman go du hartutako erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. 30 egunez jendarean jarriko dute ikusgai. Tarte horretan inork erreklamaziorik aurkezten ez badu behin betiko onartutzat joko da.

Marokok su-etena hautsi izana salatu eta saharar herriari babes osoa adierazi diote

Azaroaren 21ean herritarrek Mikel Laboa plazan egin zuten moduan, Usurbilgo Udalaren txanda izan zen hilaren 26ko udalbatzarrean. Herritar talde batek aurkezturiko erakunde adierazpena onartu zuten gehiengo osoz. Marokok 1991tik indarrean zen su-etena nahita hautsi izana salatu eta saharar herriari babesa adierazi zioten.

Horrez gain, Minursori eta Nazio Batuen Erakundeari autodeterminazio-erreferendum bidez Mendebaldeko Saharako gatazkaren behin betiko konponbidea sustatzea eskatzen diete. Sahara administratzen duen potentzia gisa, dagokion erantzukizuna bere gain har dezala exijitzen diote Espainiako Gobernuari. Eta herritarrek Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa babes-terko deitzen diren mobiliza-



Azaroaren 21ean herritarrek Mikel Laboa plazan egin zuten moduan, Usurbilgo Udalaren txanda izan zen hilaren 26ko udalbatzarrean.

SAHARAREN ALDE

“Herritar talde batek aurkezturiko erakunde adierazpena onartu zen gehiengo osoz”

zioetan parte hartzera deitzen dituzte.

EHBildu eta EAJren babesarekin

EHBildu eta EAJ udal taldeek babestu zuten testua. PSE-EEK abstenitzea erabaki zuen. “Ezin dugu terminologia partekatatu” zioen Patxi Suarez zinegotziak. Marokok erreferendum akordioak etengabe

urratu dituen arren, kontuan hartzeko deritzo kanariar irletara heltzen ari diren migranteen errealitatea edota arrantzaleek bertan dituzten interesak.

Saharar herriari babes osoa adierazi, beharrezko baliabideak emateko borondatea agertu eta sahararren egoera egonkortzeko desioa agertu zuen Suarezek. “Europak eta Espainiak gehiago egin ahal dute” bere ustez baina “nazioarteko komunitatearekin joan behar dugu”.

Udal gobernu taldetik penaz jaso zuten PSE-EEren abstenitzioa. Alkate Agurtzane Solaberriaren esanetan, Espainiako Gobernuak kide den alderdi horren “egitekoa garrantzitsua da, ezin du beste aldera begiratu. Dagokion ardura bere gain hartu behar du. Marokoren aurrean jarrera tinkoagoa erakutsi behar luke”.

Saharari laguntzeko kanpaina

Azaroaren 21ean Marokoren su-eten haustura salatu eta saharar herriari babesa adierazteko Mikel Laboa plazan deitu zuten elkarretaratzearen ondoren, herritar talde berak eta Tadamon elkargune internazionalistak elkartasun ekimen berri bati atxikimendua adierazi diote.

Irageanean, urte luzez antolatatu izan den janari bilketa kanpaina bideratzea ezinezkoa izango da aurrean; covid19-ak eragindako pandemiagatik, “mugak itxita daude eta errefuxiatu sahararrek ez dute laguntzarik jasotzen”. Horren ordean, Donostiako SEADen Lagunen Elkarteak

diru-bilketa ekimena abiarazi du. “Zuek ere parte hartzera animatzen zaituztegu”. Bi kontu zenbakiotako batean egin ditzakezue ekarpenak:

Laboral Kutxa:
ES48 3035 0060 45 0600064286

Kutxabank:
ES32 2095 5600 84 1062626675

Ekimen honen Usurbilgo sustatzaile taldeak berri eman duenez, “jasotzeko Saharako Ilargi Erdi Gorriari bidaliko diogu, eta beraiek arduratuko dira elikagaiak erosi eta kanpamentuetako familien artean banatzeaz. Ekarpen guztiak

eskertuko ditugu”. Esker hitzak dituzte baita azaroaren 21eko elkarretaratzean parte hartu zuten guztientzat.

Kuba, Tadamonen bi erakusketetan

Sahararrak laguntzeko elkartasun ekimenaz gain, asteotarako bi erakusketa ere antolatu ditu Tadamon elkargune internazionalistak; “emakumeak, elikadura-burujabetzaren protagonistak. Kubatarren eta euskaldunen bizipenak” izenekoak abenduaren 4tik 13ra. “Argazki-erakusketak zortzi emakume nekazari kubatarren eta zortzi euskal nekazarien eguneroko lana

biltzen du, emakumeen biografiek eta 40 argazki baino gehiagok osatzen dutelarik erakusketa. Argazki dokumentalak Josu Trueba eta Pau Coll-ek eginak dira. Euskadi-Cuba Elkartearen eskariz eta EHNE-Bizkaiaren lagun-tzaz sortu zen”.

Erakusketa hau itxi eta biharamunean zabaltzeko da bigarrena; astebetez, hilaren 14tik 20ra. “Tasioren Cuba”. “Tasio umorista grafikoak “Cuba información” egunkarirako egin zituen binetak biltzen dituen erakusketa da”.

Antolatzailea: Tadamon.

Aitortza, motibazio politikoko indarkeriaren biktimei

2012az geroztik Estatuak eragin edo sustatutako indarkeriak jasandako biktimeen eskubideen alde lanean diharduen Egiari Zor Fundazioak aurkezturiko mozioa onartu zuen udalbatzak aho batez, azaroaren 26ko osoko bilkuran. Batetik, 1978-1999 urte artean EAE-n motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei aitortza adierazten die.

Haiei zuzenduta, aipatu fundaziotik orotarazten duten moduan, “2019ko irailaren 27an epea zabaldu zen giza eskubideen urraketan biktimak apirilaren 4ko 5/2019 Legearen babespean aitortzeko eskaerak aurkezteko”.

Mozio honen bidez, “Usurbilgo Udalak animatzen ditu giza eskubideen urraketan bik-



1978-1999 urte artean EAE-n indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei aitortza adierazten die mozioak.

ESKABIDEAK

“Pertsona horiei aholkularitza eta laguntza emateko konpromisoa hartzen du Udalak”

tima gisara errekonozimendua eta erreparazioa jasotzeko eskaera aurkezteko borondatea

duten udalerriko pertsonak prozedura hori martxan jartzeko eskabidea aurkeztera”. Horretarako, “pertsona horiei aholkularitza eta laguntza emateko konpromisoa ere hartzen du Udalak”. Egiari Zor Fundazioak tramitazio lanean laguntzeko bideak zabalik ditu: info@egiarizor.eus / 944 045 363.

Militarren kuartelik ez Zubietan

Erraustegia eraikia eta dua urtebetetik kea dariola. Kartzela 2021eko bigarren hiruhilekoan hasi daitezke eraikitzen. Haren ondoan, militarren kuartela kokatuko ote zuten argitzeke zen, baina azkenean ez; ez dute ekarriko aipatu gainerako azpiegiturak kokatu dituzten Zubietan gainera. Zegoen lekutik ehunka metro gutxira

leku aldaturiko dute; egungo Loiolatik gertu den hipika eremura. EAJ-k Espainiako Gobernuaren aurrekontuak babestearren truke, besteak beste kuarteleko lur eremua saldu dio gobernua Donostiako Udalarari. Eredu hau bertan garatzea aurreikusia duen etxebizitza proiektua gauzatzeko baliatu nahi dute. Ondorioz, ezinbestekoa zuten

kuartela leku aldaturikoa. Denbora luze balizko kokagune ezberdinak planteatu izan dizkio hiriburuko Udalak Madrileko Gobernuari; tartean, alkateak berak aipatu izan duen moduan Zubietan gaina. Madrilek beti ezezkoa; baina argi zuten Donostian mantendu nahi zituela militarren. Azkenean Loiolan bertan kokatuko dute kuartel berria.

Buruntzaldean operario gisa aritzeko lan-eskaintza publikoa

Langabetuak lan merkatuan txertatzeko programa abiatu dute Betteri-Buruntzako udalek, bereziki, ohiko merkatuan txertatzeko arazoak dituzten taldeei zuzenduta.

Usurbilen, bost hilabeterako lau kontratazio

Guztira, 18 lagun kontratatuko dituzte: Usurbilen bost hilabeterako lau postu izango dira, lanaldi osokoak.

Udal brigadan aritzeko

Zeregin anitzetarako operario gisa udal brigadan lan egiteko enplegu programa da, ohiko lan-merkatuan txertatzeko arazoak dituzten kolektiboak zuzenduta, batik batik, lehentasunez: emakumeak (%40), DSBE Diru Sarrera Bermatzeko Errenta (RGI) kobratzen dutenak (%30) eta 55 urte baino zaharragoak (%15). Gainerakoan, kolektibo hauetakoak izan behar dute: 45 urtetik gorakoak, iraupen luze langabetuak eta Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu ondoren lana galdu dutenak.

Izen-ematea, Lanbiden

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko Lanbiden argitaratu den lan eskaintzan eman behar da izena. Informazio gehiagorako, enplegu@usurbil.eus helbidera idatzi edo udaletxera deitu dezakete interesa dutenek.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

Abenduko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axpil.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Urte arraro hau bukatzeko desiratzen zaude, eta dagoeneko 2021eko agenda erosi duzu. Hileko aholkua: 2020a nola doan ikusita, 2021era iritsiko garela uste duzu?

**CANCER**

Faltan botako duzu urtero Durangoko Azokara egiten duzun irteera. Hileko aholkua: Herriko dendetan ere liburuak eta diskak erostea ez dago debekatuta... edo zurea posturo hutsa da?

**LIBRA**

Ez zara oso gabon zalea, baina oporrak noiz iritsiko zain zaude aspaldidanik. Hileko aholkua: Bere alde onak baditu pandemiak: ez duzu lagun ezkutua egin beharko!

**CAPRICORNIUS**

Gabonak maite dituzu eta dagoeneko hasi zara etxe guztia zintzilikarioz eta apaingarriz betetzen. Hileko aholkua: Kontuz balkoiko argiekin, egunen batean hegazkin bat lurretatuko da bertan eta!

**TAURUS**

Gauza txikiez gozaten hasi behar duzu. Hileko aholkua: Adibidez, zer nolako plazera da etxera iritsi eta maskarilla eta bularretakoa kentzea, ezta?

**LEO**

Haserre zaude Adarra, Ernio, Txindoki eta Aizkorrira ezin duzulako joan, eta ez zara konurtatzen Usurbilek ematen dizkigun aukerez. Hileko aholkua: Ados, muga perimetrala ezin dugu pasa, baina zu azken al-dian zeharo perimetrala zaude!

**SCORPIUS**

Maskarillak jendearen irribarre ezkutatu du eta hori ez daramazu ongi, oso soziala zarelako. Hileko aholkua: Baina zein ondo dator musukoa kalean hotza egiten duenean, ezta?

**AQUARIUS**

Ate bat ixten denean beste bat irekitzen dela esaten dute, eta horixe da zuri gertatuko zai-zuna datozen asteetan. Hileko aholkua: Baina ate hori ez dala izan hozkailuarena!

**GEMINI**

Ahobizi eta Belarriprest paperean sartuta egongo zara buru-belarri, eta ez bakarrik Euskaraldiak irauten duen bitartean. Hileko gomen-dioa: Txapa pijaman janzteia ez al da gehiegitxo?

**VIRGO**

Aurtengo urtea gogorra izaten ari da, eta beldur zara koronabirusak gabonak ere izorratuko ote dizkizun. Hileko aholkua: Lasai egon, pandemiarekin ere Olentzero etorriko da eta!

**SAGITARIUS**

Koronabirusak hoztu egin du zure urtebetetzea ospatzeko gogoia, baina modu epelagoan bada ere, egunaz gozatzea komeni zaizu. Hileko aholkua: Eskatu al diozu poltsa beroa Olentzerori?

**PISCIS**

Urte zaharreko mahatsak jateko prest zaude, 2021ak gauza on ugari ekarriko baititu zuretzat. Hileko aholkua: Baina ez ito parrandara ezingo duzula atera esaten dizutenean, ados?

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patriarra
IATEXEA

· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361




ABENDUKO ZINEA
SUTEGI AUDITORIOAN 18:00

LANDER GARROREN FILM BAT



**2 URTE, 4 HILABETE
ETA EGUN BAT**
FILMA eta SOLASALDIA
Abenduak 13 igandea

IMANOL RAYOREN FILM BAT



A film by
IMANOL RAYO

HIL KANPAIAK
FILMA
Abenduak 20 igandea

Sarrerak: aurrez salgai 6 eurotan usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek 4 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

noaUA



“Osasuna eta lana garrantzitsuak dira, baina kultura ere behar beharrezkoa dugu gure bizitzan”

2018ko martxoan taularatu zuten lehenbiziko aldiz Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai *Bakean Dagoena Bakean Utzi* binakako bakarrizketa saioa. Orduz gerotzik Euskal Herriko txoko ugaritan barrez jarri dute jendea, eskaini dituzten 120 emandietan. Umoregileek *Luze edo motz* ikuskizuna sortu berri dute, hau ere Lankuren produkziopean. Umorea eta generoa ardatz hartuta, bost bakarrizketa josi dituzte ordu beteko saioan.

NOAUA! Emanaldien faltan, idazketan igaro al zenuten udaberriko konfinamendua?

Ba egia esan ez. Konfinamenduak sormena guztiz kamustu zigun eta erabaki genuen aurreragorako uztea. Ikusten genuen sare sozialetan jendea kantak egiten, kontzertuak eskaintzen, ipuinak irakurtzen eta gu biok berriz ez geunden ezertarako... Azkenean iraillean hasi ginen lanean eta orduan bai, orduan sormenaren iturriak bor-bor egin zuen.

Jitsi, Zoom, Google Hangouts, Houseparty... Luze edo Motz prestatzeko, zein aplikazio baliatu zenuten zuek?

Guk sortzeko behar beharrezkoa dugu aurrez aurre egotea, denbora elkarrekin pasatzea, batera barre egin eta



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileek ikuskizun berria jarri dute martxan: *Luze edo Motz*.

MIRARI MARTIARENA ETA IDOIA TORREGARAI

“Emakumeok nahikoa epaituak izaten gara gure itxuragatik. Hori dela eta erabaki genuen beti berdin jantzita egitea gure saioak: beltzez eta koloretako txaketekin”

batez ere txorakeriak barra-barra botatzea. Beraz, whatsapp erabili dugu bakarrik, eta noiz geratuko ginen esateko

bakarrik! Alde horretatik oso analogikoak gara. Eskerrak eman behar dizkiogu ere Usurbilgo Udalarari gure sormen bide honetan Potxoenea uzteagatik.

Luze edo Motz partida iragarri berri duzue. Gerriko goriarekin eta urdinarekin kantzaratuko al zarete? Non utzi dituzue aurreko emanaldiko txaketa eder horiek?

Txaketa berriak erosi ditugu! Idoiak jarraitzen du gorriarekin (zaharrena delako, ez fabo-

rito) eta Mirarik urdinarekin. Gerrikorik gabe beraz. Guretzat garrantzitsua da oholtzara eroso eta konfiantzaz igotzea; emakumeok nahikoa epaituak izaten baikara gure itxuragatik. Hori dela eta erabaki genuen beti berdin jantzita egitea gure saioak: beltzez eta koloretako txaketekin.

Gauzak nola dauden ikusita, areto itxiak frontoi irekiekin ordezkatu beharko dituzue akaso?

Ba egia esan dagoeneko oso eroso sentitzen gara frontoietan, ez pentsa! Kontua da negua badatorrela eta ez dela oso eroso izaten hain toki zabal eta hotzetan saioa egitea. Baina sotamano eta bipareta onak ditugu hala ere! Ez dira ez herri herri ibiltzeko garai onenak, baina gu poz pozik joango gara Euskal Herriko frontoi eta areto guztietara!

Botilerorik gabe aritu beharko duzue. Hau da hau, ezin tabernara joan, botileroa debekatu... Etxetik joan beharko da txispatuta zuenera.

Mirariren autoak egiten ditu taberna, etxe eta aterpe funtzioak. Eta bertan beti izaten dugu ura, platanoak eta jamon de york. Behin autoan sartuta egiten ditugu gure beroketak (alegia hitz eta barre egin) dagokion herrira iritsi arte.

“Gure onena ematera ateratzen gara saio bakoitzean”

NOAUA! Kantxara ateratzeko ordua da. Berrito jendaurrean aritzeko prestaketa-lanak gogorrak izan al dira? Partidaren bat jokatu al duzue honez gero?

Altzon estreinatu genuen *Bakean Dagoena Bakean Utzi* eta Altzon egin dugu ere *Luze Edo Motz* ikuskizunaren lehenbiziko saioa. Zor-

tea ematen digun herria da, egia esan, bietan egin diguten harrera ezin-hobea izan baita. Jende aurrera atera baino lehen beti izaten ditugu tximeletak sabelean, eta beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Lasaiegi egotea ez da komeni; gure onena ematera ateratzen gara saio bakoitzean.

Ez dira kantxara ateratzeko garai onenak. Nolakoak izan da zaletuen harrera?

Jendeak barre egiteko gogo dauka, eta hori oso nabarmen geratu zen Altzoko estreinaldian. Hasiera hasieratik giroa zoragarria izan zen eta antolatzaileek esan ziguten normalean etortzen ez den jen-

dea ere etorri zela. Osasuna eta lana garrantzitsuak dira, baina kultura ere behar beharrezkoa dugu gure bizitzan. Beharrezkoa dugu tarte bat guztiaz ahazteko, amets egiteko, gozatzeko, barre egiteko, beste bizitza batzuk bizitzeko... Eta ez dira behar adina garrantzia ematen ari.

“Mirari diesela da eta Idoia gasolina”

NOAUA! Apostu-etxeetan, bietan zein izan ohi da faborito: Mirari Martiarena edo Idoia Torreagari?

Bakoitzak gure estiloa dugu, eta orekatu egiten gara. Mirari lasaiagoa da gauzak azaltzeko orduan, sotilagoa. Idoia berriz histrionikoagoa da, esajeratuagoa. Mirari diesela da eta Idoia gasolina. Biok garen modukoak garelako izaten dugu arrakasta. Bi urte t'erdi honetan izugarritzko bidea egin dugu batera eta primeran eza gutzen gara. Begirada batez dakigu bestea nola dagoen eta babesa behar ote duen. Hori gauza handia da!

ETB1eko Barre libreata saioan gero eta emakume gehiago ikusten ditugu. Noiz egingo da bakarrizketen Emakume Master Cup txapel-



Luze edo Motz emanaldia azaro hasieran taularatu zuten lehen aldiz Altzon.

MIRARI MARTIARENA ETA IDOIA TORREGARAI

“Gure kasuan, etortzen den publikoaren %85a emakumezkoa izaten da”

keta bat?

Aspaldi aldarrikatzen du-

gun zerbait da hori. Zorionez, telebistak ikusgarritasun handia ematen du eta une honetan umorea gehiago kontsumitzen da. Hala ere, oraindik bi emakumezkoen umore bakarriketa ikuskizuna ez da ohikoa. Gure kasuan, gainera, etortzen den publikoaren

%85a emakumezkoa izaten da. Horrek zer esan nahi du, guk egiten dugun umorea ez dela unibertsala? Oraindik askok “emakumeen kontuak” bezala etiketatzen gaituzte, eta ondorioz, gizon gutxiago agertzen dira. Baina guk kontrakoa frogatu nahi dugu: hau da, hillekoaz, menopausiaz, masturbazioaz, edo ligatzeaz egiten dugun umorea ere denentzat dela, alegia.

Usurbilen frontoi pila dago. Noiz etorriko zarete hona Luze edo Motz jokatzera?

Etxean jokatzera beti izaten da zailagoa, presioa handiagoa izaten delako. Baina herrian aritzeak ere poza eta harrotasuna ematen du, beraz, espero dezagun datorren urtearen hasieran edo Usurbilen jokatzea!

BAZKIDEEN TXOKOA

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu abenduaren 9an

noaUA!
euskararen
aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaUA.eus

Haurrei geroz eta lehenago ematen zaie lehen telefono mugikorra

Hitz-Aho guraso elkar-teak antolatuta, haurrengan mugikorraren eraginak aztertu zituzten hainbat gurasok eta Bidelagun elkarteko dinamizatzaileak aurreko asteartean Udarregi Ikastolan. Hainbat eskoletan egin dituzte gisa honetako solasaldiak eta, Zarauzko Ikastolan esperientzia bat martxan ere jarri zuten. Hori guztia izan zuten aztergai jangelan.

Geroz eta lehenago ematen zaie lehen mugikorra haur eta nerabeei. Jaunartzeko opari izarra izan ohi da azken urteetan. Guraso asko kezkatuta zeuden eta zalantzak zituzten seme-alabei mugikorra zein momentutan eman. Egun, batez besteko bat eginda, Udarregi Ikastolan badirudi DBH1en hasten direla haurrak beren mugikor propioa izaten, hots, Interneta daukan mugikorrez ari gara uneoro. Nahiko txukuna den datua dela zioen dinamizatzaileak, eskola askotan LH3-5 bitartean hasten omen



Batez besteko bat eginda, DBH1en hasten dira haurrak beren telefono propioa izaten.

ESKUKO TELEFONOAZ

“Noiz eman? Bidelagun elkartearen aburuz, egokiena 16 urterekin. Izaera askoz garatuago daukate adin horretan”

dira eta.

Datuak mahai gainean, arriskuak aztertu behar. Lehen mugikorrarekin batera, haur eta nerabeei sare sozialetan

kontuak ireki ohi dituzte, gutxienez sare sozial batean bai behintzat. Horrek zuzenean kanpoko munduarekin eta adin guztietako jendearekin jartzen ditu kontaktuan, eta hori arriskutsu izan liteke mugikorraren erabilera egokia egiten ez dakien haur batentzat.

Zarautzen, gurasoak elkartu eta erabaki zuten haiek erabaki behar zutela haurrei mugikorra noiz eman. Askotan, gurasoak

presionatuta sentitzen dira haurrari mugikor bat emateko, gelako lagun askok badituztela eta bazter ez dezaten. Egoera horren aurrean, gela horretako gurasoen artean hitzarmen moduko bat egitea da egokiena, zein adinetan emango dizkieten zehaztuta. Gisa horretara, haurrek ez dute beharrik sentituko mugikor bat izateko, lagunek ere ez baitute izango. Baina noiz eman? Bidelagun elkartearen aburuz, 16 urte betetzean litzateke egokiena. Izaera askoz garatuago daukate adin horretan, eta gizarteko arriskuez askoz jabetuago daude. Horrela euren burua behar bezala babes dezakete. Kontua da, adin horretara arte mugikorra ez ematea ez dela oso bideragarria, eta oso zaila dela ordura arte presioari ustea.

Beraz, zer egin dezakete gurasoek egoera horren aurrean? Elkar hartu eta erabaki bateratuak hartu, eta haurrekin ere gaia behar bezala landu. Horik aurrerakoak, tamalez, beraien esku daude.

‘Preziyo Juxtua’ asmatzeak saria dakar

Hurbilagok ‘Preziyo Juxtua’ izeneko kanpaina jarri du martxan. Argazkiko eskaparatean dauden produktu guztien preziora gehien hurbiltzen direnek saria eskuratuko dute. Adi, abenduaren 12an amaituko da eta sariketa.

Joko-arauak

- Erosi Hurbilago elkarteko saltokietan.
- Eskuratu parte hartzeko txarteltxoa.
- Eskaparatearen balioa kalkulatu, baina pasa gabe.

■ Txarteltxoa bete eta Hurbilagoko dendako kutxan bota edo bidali balioa preziojuxtua. hurbilago.com Internet helbidearen bidez.

Kalkulatu prezioa, “baina pasa gabe”

“Preziora gehien hurbiltzen direnek, pasa gabe, eskaparateko beraien oparia aukeratuko dute”, kanpainaren sustatzaileek aditzera eman dutenez.

Sariketa hau bideratzeko, Hurbilagok Usurbilgo Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.



Eskaparatea Kontzeju Zarra 13 kaleko lokalean topatuko duzue. 2015ean, Kilometroak Gattunk dendaren egoitza izan zen toki berean.

“Bakean dagoena bakean uztea eskatzen du Amona Tomaxak”

NOAUA! aldizkariak oparia dakar aste honetan: Amona Tomaxaren abentura berri bat. Pertsonaia maitagarri honen lehen ipuina iazko abenduan plazaratu genuen. Honakoan ere, Ixabel Agirrerarobek idatzi du istorioa eta Mattin marrazkilariak gorputzu du.

NOAUA! Amona Tomaxak sasoi ederrean jarraitzen du. Baratze polita du eta azokara jaisten segitzen du. Ezustean ordea, dena aldrebestuko duen zerbait topatuko du. Ingurukoa eta bertakoa babesteko kezka areagotu egingo zaio, ezta?

Ixabel Agirresarobe: Bai. Badi-rudi batzuk behintzat, gauzak bere horretan ezin dituztela utzi. Behar ez duguna eskaintzen digute eta azkenean eskaini diguten hori ezinbestekoa dela sinisten dugu.

Amona Tomaxak ordea, gauzak ez ditu horrela ulertzen. Bakean dagoena bakean uztea eskatzen du.

Iazko argitalpenaren espe-



Aste honetako aldizkariarekin batera Amona Tomaxaren ipuin berri bat banatu dugu.

IXABEL AGIRRESAROBÉ

“Amona Tomaxa nire buruan agertzen denean, Mattin marrazkilariak emandako irudiarekin ikusten dut”

rientzia oso baliogarria izango zen bigarren ipuin honi ekiteko garaian, ezta?

Bai horixe. Amona Tomaxa nire buruan agertzen denean eta beste eginkizun edo abentura batean dabilela irudikatzen dudanean, Mattinek emandako irudiarekin ikusten dut.

Urtea gorabeheratsu doa. Amona Tomaxak, hala ere, abentura bat baino gehiago izan du. Elkar argitaletxearekin plazaratu duzue Amona Tomaxa eta Gizandia ipuina. Mugak zabal-tzen hasi den seinale al da?

Baliteke. Dena dela, lan handia eskatzen du honek. Hankak lurrean jarri behar dira eta denbora hartu. NOAUA!ren bitartez, zorionez, etxe guztietara iritsiko da ipuina baina Elkar argitaletxearekin ikusi egin behar zein izango duen erantzuna. Hala ere oso pozik nago eta saiatuko gara abentura berriak sortzen eta idazten.

Joxan Artzeren lanik poliedrikoena

Txalaparta, tradizioaren abaroen Joxan Artzeren hil ondorengo liburua da. Elkar argitaletxeak plazaratu du eta lehengo astean aurkeztu zuten hedabideen aurrean. “Liburuak artistaren dimentsio guztiak hartzen ditu bere baitan: tradizioa, poesia, estetika eta espiritualtasuna”, hala zioen Antxiñe Mendizabal editoreak aurkezpen ekitaldian. “Irakurleak bertan topatuko du Artzerik poliedrikoena”.

Liburua eskuarte hartzekoan, “akaso konturatuko da zenbait esaldietan hutsu-neak daudela, puntuazio mar-



Txalaparta, tradizioaren abaroen liburua aurreko astean aurkeztu zuten.

ka zalantzazkoak edo make-tazio akatsak dituela”. Baina ez, propio hala argitaratu nahi izan du Elkarrek. “Artzek utzi bezala argitaratu nahi izan dugu, bere azkeneko egune-

ra arte eutsi ziolako proiektu honi eta originalagoa eta egiazkoagoa iruditu zaigulako bere horretan argitaratzea”, adierazi zuen Antxiñe Mendizabalek.

Txirikorda eta Akerrako proiektuetarako diru-laguntzak

Eusko Jaurlaritzaren 640.000 euroko diru-laguntza jasoko du Usurbilgo Udalak sustaturiko Txirikorda proiekturako. Ugartondoko etxebizitza berrien eremuan kokatuko den udal ekipamenduak “bultzada nabarmena jasoko du” Udalak ohartarazi duenez. 2.375.000 euroan baloratua du proiektua, eta haietatik 2.063.000 euro “jada lortuak eta lotuak ditu”.

Eraikitze-lanak, 2021ean

“16 zuzkidura bizitoki barne hartuko ditu Txirikordak, eta 40.000 euro jasoko ditu horietako bakoitzagatik: lor zitekeen kopuru osoa, alegia”. Egitasmoa zertan den ere azaldu dute Udaletik. “Exekuzio proiektua eginda, otsailean hasiko da lanak esleitzeko prozesua, 2021ean eraikitzen hasi, eta, hala, 2022 amaierarako martxan egotea nahi du udal-gobernuak”. Urte amaieran hasieraz onartu asmo dituzten 2021eko udal aurrekontuetako “inbertsiorik garrantzitsuena izango da”, iragarri dute Udaletik. Kostu osoa estaltzeko, beste 312.000 euro jarriko ditu udalak 2022ko aurrekontuetan”.

Akerra, gaztetxe eta txokoaldetarren bilgune

Txokoalden ere birgaitzen ari diren Akerra eraikinerako Jaurlaritzaren laguntza jaso du Udalak; 84.045,55 euro. “Zehazki, Eusko Jaurlaritzaren Erein deialditik, landa eremua sustatu eta laguntzeko ateratakoa”. Gogoan izan, Akerra eraikinean elkarbiziko direla etorkizunean, gaztetxea eta txokoaldetarren bilgunea izango dena.

Gazte Egun berezia, pandemia betean

Gazte Egun atipikoa izan da aurtengoa, ohiko afari eta ondorengo musika ekitaldirik gabe. Beste modu batekoa izan arren, ospatu ospatu zen. Ostiralean solasaldia egin zuten Askatasuna Plazan pandemiak gazteengan izandako eraginak aztertu eta irtenbide posibleak aztertzeke.

Ikuspuntu ugaritatik aztertu zuten gaia dela hezkuntza arloan, dela kulturaren, enpleguan eta orokorrean harremanetan. Talde txikitan aztertu zuten gai bakoitza, ondorioak atera eta gaiak sakonki aztertzeke.

Manifestazioarekin amaitu zen Gazte Eguna

Aurtengo Gazte Egun atipikoarekin amaitzeko manifestazioa egin zuten Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Azken bi egunetan egindako hausnarketekin amaitzeko, erantzukizunak hartzeko eskatu zuten eta gazteen bizi proiektuek izan dituzten eta oraindik ere izaten ari diren eragin negatiboak amaiara emateko eskatu dute beharrezko laguntzak emanaz.



Ostiral arratsaldean Askatasuna plazan elkartu ziren, eta talde txikitan aztertu zuten gai bakoitza.



Gazte Egun atipikoarekin amaitzeko manifestazioa egin zuten Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Kabaret giroan hasi ziren Euskaraldiko ekitaldiak

Euskaraldi bete-betean dabil Euskal Herria, eta nola ez Usurbil. Kaleak Ahobizi eta Belarriprestez bete dira, bai eta hainbat txoko Ariguneez ere. Usurbilgo Euskaraldi taldeak, kaleko ariketa horrez gain, egitaraua sortu du hainbat ekitaldirekin. Horietan lehena izan da “Esnatu naiz” kabareta. Larunbateko ekitaldian sarrera guztiak saldu ziren Elurren Londreseko underground mugimenduko bizitzaren berri izateko.

Ondubeteko saioan, Elurren The Pink Flamingo klubeko

gorabeherak ezagutu zituzten hara hurbildutakoek. Elur Euskal Herrian jaiotako berritarrak lurralde hau utzi eta Londresera alde egin zuen abestu eta dantzatu ahal izateko bere show propioa izanda. Identitatea, giza-harremanak eta sexualitatearen gaia landu zituzten Sutegira hurreratutako hainbat lagunek, hitza, kantua eta dantza nahasten dituen ikuskizunaren bitartez.

Datozen deialdiak

Abenduak 3, osteguna:
Euskararen Eguna

■ 19:00 “...Nahi dugu hitz eta jolas” bertso saioa Sustrai Colina eta Jone Uria bertsolariekin eta Imanol Artola Felix gai-jartzaile dela Sutegiko auditorioan.

■ Sarrera: izena eman abenduaren 1a baino lehen usurbilkultura.eus atarian.

■ Edukiera: 78 lagun.

Abenduak 4, ostirala:

■ 18:00 Onintza Enbeitaren “Non gelditu gara gu?” hitzaldia Sutegiko auditorioan.

■ Euskalgintza, feminismoa eta pandemia aztergai.



Esnatu naiz kabareta eskaini zuen Andoni Mutiloak.

■ Sarrera: abenduaren 2a baino lehen usurbilkultura.eus atarian.

■ Edukiera: 78 lagun.

“Normaltasun heteropatriarkalaren aurrean, kaleak hartuko ditugu!”



Azaroaren 25ean ekimen ezberdinak antolatu ziren herrian. Eskualde mailako mobilizazioa Lasarte-Orian egin zen.

Mezu argia plazaratu zuten Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko egunean, Usurbilgo Kafe-Tertuliako neskek*; “Normaltasun heteropatriarkalaren aurrean kaleak hartuko ditugu!”. Eta hala egin zuten lehenbizi, Usurbilen eginiko “Buruberoki” tailerra-

BURUNTZALDEKO NESKA*

“Hortzak erakutsiko dizkiogu ahul eta itzaletan nahi gaituen sistemari”

rekin eta kale apainketarekin. Baita gero Lasarte-Orian deitua

zegoen eskualde mailako mobilizazioan parte hartuz.

“Pausoz pauso ari gara”

“Hilabeteak pasa dira Buruntzaldeko Neska* Gazteok gure artean saretzeko prozesua aurkeztu eta martxan jarri genuenetik. Pausoz pauso ari gara,

eta gaur hemen elkartu izanda horren adierazlerik handiena. Gure hautuan berresten gara, elkar zaindus eta auto-defentsa feministaren bitartez, hortzak erakutsiko dizkiogu ahul eta itzaletan nahi gaituen sistemari. Ez dugu inongo erasorik onartuko!”

ONGIZARTEA

HERRI JASANGARRIA

AURKEZPENA

2021EKO AURREKONTUAK

ABENDUAREN 9AN
POTXOENEAN
18:30

UDALA HERRIAREN ZERBITZURA

HERRI NORTASUNA

Izen-ematea: komunikazioa@usurbil.eus





Ofizioen Gida



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76

943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu. 28
20170 - USURBIL

Josue

Igeltseritza: 606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.

Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ

ERAIKUNTZAK, S.L

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

628 45 78 39
reformasmonroy@hotmail.es

TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL



Antonio URRUZOLA

AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE

Salsamendi Arregi, Iñaki

AROSZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL

J. R. IBARGOEN S.L.

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoenaroztzi.net jribargoen@aroztzi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859

943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas
Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI

APARICIO

DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943

Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL



Enrique Alonso

ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak

TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa

BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri
arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa

iturgindegia



· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINDATZAKO GREHIOAK · KOKUNEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04

KNORGT Txibi S.L

KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

Andatza Karrozeria: “Karrozeriari lotutako zerbitzu guztiak eskaintzen ditugu”

Azaroaren 16an ireki zuten Andatza Karrozeria Errota Berri kalean. Lehenago ere karrozeria irekita egon zen konfinamendura arte, baina jabea jubilatuta eta itxi egin zuten. Orain jabe berriak ditu, eta martxan da karrozeria. Aurreko jabeen lana jarraitu, eta berrikuntzak eskaintzeko prest agertu dira.

NOAUA! Aurreko jabeen tokia betetzera etorri al zarete?

Andatza karrozeria: Zerbitzua eman zioten Usurbil eta inguruko herriei, eta guk horri jarraipen bat eman nahi diogu, horren ongi edo hobeto ahal bada. Karrozeriari lotutako zerbitzu guztiak eskaintzen ditugu: karrozeria mota guztietako erreparazioak, auto-argien leunaketa, auto-beiraren ordezkatzeta, lapurreta kalteen konponketa, margoketa lanak, kristalak al-



“Azaroaren erdialdean ireki genuen”. Baina proiektuarekin ekinean hasi ziren, “orduan utzi baitzuen negozioa aurreko jabeak”.

ANDATZA KARROZERIA

“Berrikuntza gustatzen zaigu eta merkatuaren beharretara egokitzea”

datzea, tapizeria... Karrozeriari lotutako den-dena egiteko prest gaude. Autoez gain, furgonetak, kamionetak, motorrak, bizikletak konpon ditzakegu.

Bi karrozari elkartuta ekin diozue proiektuari.

Lehenagotik ezagutzen genuen elkar, eta zentzu horretan batera zerbait sortzea errazagoa izan da. Hori bai, ez dugu inolako laguntzarik jaso. Saiatu ginen negozio berriei eman ziezaioten laguntzaren bat eskuratzen, ekonomia berriz indartzeko lanetan zerbait izan

zitekeelakoan, baina ez.

Zer eskaini dezakezue besteek eskaintzen ez dutena?

Guri berrikuntza gustatzen zaigu eta merkatuaren beharretara uneoro egokitzea. Kurtsoak egin ditugu, eta gainontzeko herrialdeetan nola funtzionatzuten duten ere oso kontuan izaten dugu. Estatu Batuetan, adibidez, oso ohituta daude kolpe bat edo konpondu behar dutenean pintura guztia ez kentzen. Duela gutxira arte, eta oraindik ere askotan pintura guztia kentzen dute zona txiki bat konpontzeko, eta hori egitea ez da beharrezkoa gaur egun, badaude beste modu batzuk ere. Bestalde, gerroz eta auto mota gehiago dago, hibridoak eta elektrikoak gerroz eta gehiago ikusten dira, eta hori guztia nola tratatu ere jakin egin behar da.

“24 edo 48 ordutan egin nahi ditugu konponketa guztiak”

NOAUA! Nola ikusten duzue sektorea gaur egun?

Egia da beheranzko joera batean dagoela karrozeria. Hala ere, etxe bakoitzeko gerroz eta auto gehiago daude. Duela ez horrenbeste urte familia bakoitzeko auto bat izaten zen, eta orain, gehienetan kide bakoitzak bere auto propioa izaten du. Orduan, guk apustu irmoa egin dugu ofizio honekin jarraitzeko, eta uste dugu bizimodua ateratzeko lanbide egokia izaten jarraitzen duela. Guk ere ez dugu momenturik egokiena aukeratu negozioarekin hasteko, otsailetik ireki gabe dago karrozeria, eta bezero asko beste leku batzuetara mugituko zen. Momenturik okerranean hartu dugu, eta orain aurrera jarraitzea besterik ez dago, okerragora joatea nahi-

ko zaila da zentzu horretan.

Autoen salmenta ere neurri handi batean asko jaitsi da.

Guri hori ongi datorkigu. Jendeak orain ez du auto berria erosten egoera nola dagoen ikusita, eta zaharrarekin jarraitu beharko du, orduan guretzat lekua dago hor. Lehen autoa luxu bat zen, orain berriz ezinbesteko ondasun bilakatu zaigu. Horregatik neurri handi batean, lehen autoa gehiago zaintzen zen eta itxurari garrantzia berezia ematen zitzaion, orain arazo konkreturik ez badu eta zirkulatzen jarraitzeko moduan badago, ez zaio horrenbeste begiratzen alderdi horri. Arrisku orotarako aseguruak kontratatzen dituen gerroz eta jende gehiago dago, lehen alde handia zegoen aseguru mota batzuen eta besteen artean, baina egun

alde hori askoz txikiago da. Gure negozioa hor dago neurri handi batean, poltsikotik ordaindu behar duten partikularrena baino gehiago. Aseguruak ordaintzen badu urradura, konponketa egitera gehiago animatzen da jendea bere dirutik jarri behar duenean baino.

Zein izan daiteke zuen sekretua bezeroak lortzeko?

Industrialdean fabrika asko daude, eta beraz, langile ugari ere bai. Guk 24 edo 48 ordutan egin nahi ditugu konponketa guztiak. Egungo teknologiarekin ez da horrenbeste denbora behar konponketa jakinak egiteko, ez bada istripu nahiko larri baten kasuan edo. Konpromisoa hartu dugu egun berean edo hurrengorako konponketak egiteko, uste dugulako autoa beharrezkoa dugun zerbait

dela eta egunerokotasunean nahitaezkoa dugula. Kasu okerrerenetan, konponketa handiak egin behar baditugu, bi auto dauzkagu bezeroei uzteko. Whatsapp bidezko zerbitzua ere kontuan hartzea nahi dugu. Askotan zerbait gertatzen zaigu eta ez dakigu zenbat kosta dakigukeen konpontzea edo konponketa luzea izan daitekeen.

Kasu horietan argazki bat whatsappetik bidaltzea ere aukera ona izan daiteke aurrekontu bat egin edo diagnostiko azkar bat egiteko, edo guk geuk ere lana egin dugunean nola dagoen ikusteko eta prozesua jarraitu nahi badute ere ikus dezaten. Nolabait aholkularitza ere eskaintzen dugu, egoera bakoitzaren aurrean aukera ezberdinak planteatuta.

Udalaren eta Behatokiaren arteko lankidetzaz, hizkuntza eskubideez kontzientziatu eta ahalduntzeko

Elkarlana lehenik ere bazen arren, hizkuntza eskubideen defentsan urrats berri gisa definitzen du Usurbilgo Udalak Hizkuntz Eskubideen Behatokiarekin urtebeterako egunotan sinatu duen lankidetzaz hitzarmen berria. Potxoenean izan zen sinatze ekitaldia azaroaren 26an; aipatu bi erakundeetako ordezkariak, UEMA eta NOAA! Kultur Elkarteak bildu zituen hitzordua. Herritarrek hizkuntza eskubideez kontzientziatu eta ahalduntzea du helburu. Eskubideok bermatzeko tresnak eskaintzea.

Ezin testuinguru aproposagoan emandako urratsa hain zuzen; Euskaraldi betean baikara. Denbora da herritarrek dituzten hizkuntza eskubideen gaineko kontzientzia hartzeko lanean dabiltzala. Baina “kontzientzia aktibatzeaz gain, garrantzitsua da eskubide horiek bermatu ahal izateko tresnak ere eskaintzea”, Agurtzane Solaberrieta alkatearen esanetan. Behatokia eta Udalaren arteko hitzarmenean horretan sakontzen dela dio. “Kontzientzia lantzean eta batez ere herritarrek euren hizkuntza eskubideen inguruan ahalduntzean”, hain zuzen.

Hitzarmen honetan adostu bezala, datorren urte hasieran Behatokiak abiaraziko duen ekimena iragarri du alkateak. Xehetasunak aurrerago es-



Udalak Hizkuntz Eskubideen Behatokiarekin urtebeterako lankidetzaz hitzarmena sinatu du.

AGURNE GAUBEKA, BEHATOKIA

Eskaintzen diren informazio eta zerbitzuetan “herritarrek zerbitzua euskaraz lasai eta egoki jasoko dutela ziurtatu behar da”

kaintzekotan dira, baina “herritarrei dei berezia egin nahi diegu parte hartzeko”.

Euskara, zerbitzuen bermatzaile

Herritarrok ditugun hizkuntza eskubideez jabetu eta jasotzen dugun informazio zein zerbitzu oro euskaraz exijitzea eskatzen digute Behatokitik. Eta urraketak gertatu ahala,

salatzea. “Gure lanak zentzua hartzen du, herritarrek ariketa hori egiten dutenean”, zioen hitzarmena sinatzeko unean Behatokiko zuzendari Agurne Gaubekak.

Bai lehen eta bai Euskaraldi honetan euskaraz bizitzeko nahi etengabe aldarrikatzen ari garen honetan, “euskaraz bizitze horrek bere traba eta eragozpenak” dituela gogorarazten du. Horregatik “erabilera hori sustatzeko espazioak izan eta eskaintzea” beharrezkotzat jotzen du. Eta horretan administrazio publikoak zeregin berezia duela nabarmentzen du “udalek bereziki”. Eskaintzen diren informazio eta zerbitzuetan “herritarrek zerbitzua euskaraz lasai eta egoki jasoko dutela ziurtatu behar du”.

Usurbilen konpromiso hori

izan badela nabarmentzen du Behatokiak, baina “herritarren eta haien oinarriko eskubideak errespetatu eta kontuan hartzea ere eskatu behar dugu”. Oinarriko eskubideen artean baitago, hizkuntza eskubideena.

Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalak dioen moduan, ezin da inor bereizi, besteak beste, arraza, kolorea, sexua edota hizkuntzagatik. Aitortua dugun oinarriko eskubide hau betetzea eskatzen du Behatokiko zuzendariak, “erakundeetan modu naturalean barneratzeko garaia dugu”.

Pandemia hilabeteok hizkuntza eskubideen urraketaren adibide argia izan direla salatzen du Behatokiak. “Informazio gehiena gazteleraz heldu zitzaigun edo euskaraz beranduago heldu zitzaigun”. Urraketok areagotu direla ohartarazten dute, hain zuzen, bertako hizkuntzak “berebiziko garrantzia duenean zaurgarrienei zein premia berezia dutenei gertutasunez erantzuterakoan”. Laburbilduz, “zerbitzuaren kalitatea bermatzen du herritarrek euskaraz artatu ahal izateak”.

Deia honenbestez, erakunde, enpresa eta eragileei. “Bakoi-tzak bere eremutik ardura hartu eta hizkuntza eskubideak norbere erakunde eta jardueretan une oro txertatuak izateko neurri egokiak hartu behar ditugu”.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

“Norberak egin dezakeen horrek ere badu garrantzia”

Usurbilgo Udaletik garrantzitsutzat jotzen dute NOAUA! Kultur Elkartek gai honetan duen egitekoa, “hizkuntza eskubideak eta eskubide horien bermeaz aritu eta ikusgarri egiteko”.

2021ean 25 urte beteko dira hain zuzen, NOAUA! K.E. sortu zenetik. 1996tik euskal kultura eta euskara bultzatzeko bilgunea dugu. “Denbora honetan guztian bokazio horrekin aritu gara”, kultur elkarteko ordezkari Alaitz Aizpuruaren esanetan.

Mende laurden honetan egin bezala, “bidelagunekin aritzea ezinbestekoa” deritza Aizpuruak, baita “lan hori elkarbanatzea”. Eragileen arteko lankidetzaz azpimarratzeaz gain, “norberak egin dezakeen horrek ere badu garrantzia. Horretarako daude hemen aipatu diren bide eta tresnak”.

Ahalik eta “lan gutxiena” izateko desioa plazaratu du Aizpuruak, hizkuntza eskubide urraketa gutxi izango diren adierazle argia izango baita. Halere, urraketak gertatu ahala, “denon ahaleginarekin bideratzea” desio zuen.



Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, eskura dauden tresnak ezagutaraziko dituzte formazio saioen bidez.

JOKIN URANGA, UEMA

“Herritarrak ahaldundu eta inertziatik kontzientziarako saltoa emateko hainbat ekimen ditu bidelagun UEMA-k”

“Ezin gara lasaitu. Egoera hauskorra da”

Euren ildoekin bat egin eta “herritarrak kontzientziatu nahiz hizkuntza eskubideak bermatzeko konpromiso erdugarria delako”, ongi etorria eman diote UEMA-tik Udalaren eta Behatokiaren arteko hitzarmenari. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatetik bideratzen ari diren lanketaren baitan urrats berri gisa ikusten du mankomunitateko kide Jo-

kin Urangak. Hain zuzen, urte luzez udalerrriak euskalduntzeko bitartekoak eskaintzen ari diren mankomunitatetik, “herritarrak ahaldundu eta inertziatik kontzientziarako saltoa emateko hainbat ekimen ditu bidelagun UEMA-k” gogorazi duenez: hezkuntza proiektua, udalerrri euskaldunetako gazteen topaketak eta nola ez abian den Euskaraldia bera”.

Herritarrek gai honekiko duten kontzientzia giltzarritzat jotzen du Urangak Usurbil bezalako arnaguneetan. Ohartarazi duenez, “udalerrri euskaldunetara egia da egoera pribilegiatu batean bizi gara baina ezin gara lasaitu. Egoera hauskorra da eta edozein faktorek aldaketa argia ekar dezake”.

Herritarren formazioa sustatuko duen hitzarmena

- Sinatzaileak: Usurbilgo Udala eta Hizkuntz-Eskubideen Behatokia.
- Iraupena: urtebete, 2021eko azarora arte.
- Xedea: “hizkuntza-eskubideen inguruko kontzientzia areagotu eta hizkuntza-eskubideen babesean eragitea denez, bi erakundeon arteko lankidetzaren bitartez euskaldunon hizkuntza-eskubideen babesean eraginkorragoak izatea da proposamen honen helburua”.

Hizkuntza-eskubide urraketak salatzen bideak:

Egungoak:

- behatokia.eus
- euskararentelefonoa.eus
- Akuilari mugikorrenako aplikazioa

Etorkizunean martxan jarriko direnak:

- Atal berezi bat usurbil.eus atarian
- Postontziak
- E-posta

Jarraipen Batzordea osatuko dute bi aldeek. Behatokiak intzidentzien diagnostia helaraziko dio Udalari.

- Egitasmorekin inbertsioa: 900 euroko udal ekarpena.

“Euskaraz egin behar diogu aurre mundu mailako krisiari”

Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunari begirako erakunde adierazpena onartu zuen aho batez Udalak, azaroaren 26ko udalbatzarrean.

Covid-19ak guztiz baldintzatu duen egun honen bueltan, argi aldarrikatzen du adierazpenak; “euskaraz egin behar diogu aurre mundu mailako krisiari; euskaraz egin behar dugu ilunpetik argira eramango gaituen bidea; euskaraz sendatuko gara, euskaraz sendatuko dugu

geure gizartea; euskaraz berrikatuko ditugu mundu osoko giza-gizakiak. Bat garelako. Euskaraz bat mundu osoarekin”.

Ildo horretan, azken txanpara hurbildua den “Euskaraldiak eskaintzen digu aurten berri ere zailtasunak aukera bilakatzeko abagunea, krisia aukera bihurtzeko lanabesa”. Pandemiak ekarritako ikasgailetako bat ere jasotzen du aipatu adierazpenak. “Krisialditik sendoago ateratzea helburu dugun

honetan, erabil dezagun euskaraz ere aurrera egiteko lanabes gisa”.

Udal langileentzako formazioa

Euskararen Eguneko erakunde adierazpenarekin batera, arlo honi lotutako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Usurbilgo Udalaren arteko hitzarmena ere onartu zuten aho batez udal taldeek, azaroaren 26ko osoko bilkuran. “Hizkuntza prestakuntza eta normali-

zazioaren arloari” buruzkoa da. Hitzarmen honek udal langileei euskaraz alfabetatu, maila hobetu edota hizkuntza eskakizunei lotutako azterketak prestatzeko ikastaroak egitea ahalbidetzen die, eta Udalari, langileok ikastaroak egiten ari diren artean ordezkoko kontratatzeke diru-laguntzak jasotzea. Aipatu erakunde honek zerbitzuok eskaintzen dizkie ohikotasunez herri erakunde guztiei.

1973tik lehen aldiz, errepresaliatu politikorik gabeko herria da Usurbil

Historikoa izan zen Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak hilerio azken ostiraletan egiten duen moduan, azaroaren 27an Mikel Laboa plazan deitu zuen elkarretaratzea. Historikotzat jo daiteke, antolatzaileek oroitarazi zuten moduan, 1973tik, hau da duela 47 urtetik lehen aldian baita Usurbilek ez duela errepresaliatu politikorik, azaroaren 6an Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga Aranjuezko espetxetik irten zirenetik hain zuzen. Errepresaliatu politikorik gabeko lehen mobilizazioa izan da azaroko azken ostiral honetako.

Txaloak entzun ziren Mikel Laboa plazan. Berezia, oso berezia izan baitzen Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak azaroko azken ostiraletan deitutako mobilizazioa. Bilgunearen izenak islatzen duen aldarria bete da. “Usurbilen errepresaliatu politikorik gabe mobilizazio bat egiten dugun lehen aldian da”, azpimarratu zuten.



Usurbilek ez du errepresaliatu politikorik, azaroaren 6an Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga Aranjuezko espetxetik irten zirenetik.

ELKARRETARATZE BEREZIA

Oso berezia izan zen azaroko azken ostiralera Usurbilen Nahi Dituguk deitutako mobilizazioa

Halakorik noiztik gertatzen ez zen ere oroitarazi zuten; eta horrek ematen du, Usurbilek nahiz Euskal Herriak hamarkada luzeotan bizitakoaren “testigantza”. Halaxe oroitzen zuten elkarretaratzeko deitzaileek.

“1973tik, frankismoaren azken urteetan hainbat herritar espetxeratuak izan eta beste batzuk exiliatu zirenetik”, duela 47 urtetik honenbestez udalerririk betirik izan du herritar errepresaliaturik. Azkenak, Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga. Azaroaren 6an 3. gradua ezarri eta Madrilgo Aranjueztik Martutenera lekuz aldatu zituzten. Ordutik Patxi astelehenetik ostegunera gauak bertan igaro behar ditu,

Olatzek ez du kartzelara itzuli beharrik izango.

Erabateko askatasuna lortu gabe

Espetxean preso ez dira Olatz eta Patxi baina era berean, oraindik erabateko askatasun egoeran ezta. Horregatik, errepresaliatu politikorik gabeko azken 47 urteetako lehen elkarretaratzea zela zioten, baina “oraindik orain ezin dugu argiki esan presorik ez dugunik. Izan ere, Olatzek eta Patxi ez dute oraindik behin betiko askatasuna eskuratu. Baina baldintza nahiko jasangarriak ezarri dizkiete eta gure artean daude, salbuespenezko legeria baztertu eta aspalditik izan behar zuten bezala. Eta ikusitakoak ikusita eta jasangarriak jasanda, ez da gutxi”.

Poz handia agertu zuten 2018tik kalean behar zuten bi herrikideak jada etxeokoin daudela ikusita. “Sekulako poza da gu guztiontzat eta, zer esanik ez, eurentzat eta beren senide eta laguntzat”.

200 familia, urrunketaren eraginpean

Usurbili dagokionez beraz bai, errepresaliatu politikorik gabeko udalerririk da jada. Euskal Herria ordea ez noski. “Madrilek eta Parisek euskal preso politikoei aplikatzen dieten salbuespenezko espetxe politika amaitu denik ezin esan, ordea. Egia da presioa pixka bat jaisten ari dela baina oraindik bide luzea dago egiteko; oraindik ehunka pertsonak, lagunak, 200 familiek, urrunketaren ondorio larriak jasaten ja-

rraitzen baitute”.

Besteak beste, egungo pandemia testuinguru honetan, senideek komunikatu nahiz bidaiatzeko dituzten zailtasun izugarriak daude. Baita noski urte hauetan guztietan bisitetara joaten egin beharreko ehunka kilometroetako bidaia luzeetan bizi galdu duten senideak ere hor dira. “Dispersioak eragindako biktimek ez dute oraindik aitor-tza ofizialik jaso. Eta aitor-tza ezinbestekoa da horrelakorik

berriro gerta ez dadin”.

Mobilizatzen segitzeko deia

Mobilizatzeo eta gizarte aktibazioari eusten jarraitzea garrantzitsutzat jotzen dute, aldaketa batzuk ematen ari diren arren, “ez die erantzuten Euskal Herriko gehiengo politikorik, sindikal eta sozialaren eskakizunei. Espetxe-politikaren normalizazioa euskal preso guztiak Euskal Herrian daudenean emango da”.

Euskal preso, iheslari eta

deportatu guztiak bizirik eta etxean izango diren testuinguru horretara iristea bultzatu dezakeena euskal gizartearen izango dela gogorazten dute. “Presoak Euskal Herria, etxera ekartzeko eta bakea eta elkarbizitza lortzeko bidea atzerazina izan dadin, euskal gizarteak da berriz ere, estatuak eta gobernuak mugiaraziko dituen motorra. Beraz, motorra, gu guztiok alegia, ezin da geratu”.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Kontratu finkoa daukat eta Usurbilen edo Lasarten kontratuarekin eta errodarekin alokairuan etxe bat edo logela bat hartuko nuke. Fernandorengatik galdetu: 675886442.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

MOTORRA**Salmenta, garajeak**

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

Nissan Note 1600 gasolina kotea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago. 656704299.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrek emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok

hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkatagi erretegan. 680 483 164

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

24 urteko neska gaztea. Arratsaldez umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingelesezko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduenak. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuok deitu: 631 489 128.

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizona eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrek emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrek emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta

iaz ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuan haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. 664192760 / 722483994.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

BESTELAKOAK

Mendiko bizikleta bat salgai 450 euro, negoziagarriak. 646715903 (Maidier)

Kutxa bat eta 6 zentimetroko lodieradun egurrezko bi mahai salgai. 618 009 069

Zaldi bat salgai. 2013koa. Nurria. Domatua. Burukoa, arnesa eta eserlekuarekin. Informazio gehiago Amaia 943341900 eta Joxan 699870308.

Alabak giltza batzuk galdu ditu, astelehen ostegun bitartean, Torre Eiffel duela giltza kate gisa. Topatu badituzu, hona deitu: 617002046

Batxilergo 1. eta 2. mailako matematika klase partikularrek emateko norbaiten bila nabil. Klaseak gure etxean izatea nahiko genuke. 649482775

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atal-luko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 03 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 04 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 05 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 06 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 07 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 08 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 09 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 10 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

Larunbata 12 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 13 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Heriotzak

Maria Pilar Ruano Holgado
Azaroaren
29an hil zen
81 urterekin,
Santuenean



Agenda abendua

03 osteguna

■ **Euskaraldia:** "... nahi dugu hitz eta jolas" bertso saioa. Bertsolariak: Sustrai Colina eta Jone Uria. Gai-jartzailea: Imanol Artola "Felix". 19:00etan Sutegin. Antolatzailea: Euskaraldia Usurbil.

04 ostirala

■ **Euskaraldia:** "Non gelditu gara gu?" hitzaldia, Onintza Enbeitaren eskutik. 18:00etan Sutegin. Antolatzailea: Euskaraldia Usurbil.

06 igandea

■ **Haurrentzako zine zikloa:** "Koko dragoi txikia oihanean". 17:00etan Sutegin. Emaldirako sarrerak aurrez eskuratu beharko dira usurbilkultura.eus atarian.

Igandean haurrentzako filma Sutegin: "Koko, dragoi txikia oihanean"

Animaziozko film honek lehen aldiz oporretara doazen su dragoi eta gourmet dragoi ibileren berri ematen du.

Koko su dragoi txikia eta Oskar gourmet dragoa etsita daude beren lagun onenari, Matildari, ez diotelako eurekin bidaian joaten uzten, dragoa ez delako. Hala bada, Matilda udalekura eramango dituen itsasontziaren barruan ezkatzea erabaki dute.

Abenduak 6 igandea

■ 17:00etan Sutegin.



Sarrerak aurrez eskuratu beharko dira usurbilkultura.eus atarian.

■ Sarrerak 3 euro. Aurrez eskuratu beharko dira usurbilkultura.eus atarian.

■ Zuzendaria: Anthony Power.

■ Antolatzaileak: Ziortza, Udala.

Onintza Enbeita Sutegin izango da ostiralean

Onintza Enbeitak euskalgintza, feminismoa eta pandemia hartuko ditu hizpide. "Mundua bere buruari begira gelditu den honetan, gure borroka txikiek zail daukate euren burua erakusten. Zein izango dira ordea estrategia berriak? Egoeraren irakurketa kolektiboarekin hastea onena", hitzok irakurri ditugu solasaldiaren iragarpen kartelean.

Hitzaldia ostiral honetan eskainiko du. 18:00etatik aurrera, Sutegin.



Onintza Enbeitaren hitzaldirako sarrera eskuratzeko epea abenduaren 2an amaitu zen.

Datozenak

Usurbildarrak

Durangoko Azokan

Bisitariak ezingo dute Landako gunera bertaratu. Dena den, aurkezpenak eta zuzenekoak egiteko ohiturari eutsiko zaio eta artisten agerraldiak online jarraitu ahal izango dira.

Abenduak 5 larunbata

■ Asisko eta Joseba Larratxe, "Basolatik berri onik ez" komikia. 13:30 Landako gunea, solasaldia.

■ Jakoba Errekondo, "Etxeko landareak" liburua. 16:00 Landako gunea, elkarriketa.

■ Mihise, "Kronik@" diskoa. 16:45 Plateruena, disko aurkezpena.

Abenduak 6, igandea

■ Josu Ozaita eta Joseba Larratxe, "Gau beltza" komikia. 13:30 Landako gunea, solasaldia.

Abenduak 7 astelehena

■ Ixabel Agirresarobe eta Mattin, "Amona Tomaxa eta Gizandia" ipuina. 10:30 Landako gunea, aurkezpena.

Abenduak 8, asteartea

■ Mihise eta Kaskezur, kontzertua. 18:00 Doka Kafe Antzokia, Donostia.

Abenduak 20, igandea

■ Yolanda Arrieta idazlearen zuzeneko Galdakaotik.

ETXETRESNEN
KONPONKETA-
SALMENTA
MARKA GUZTIAK
DESHUMIDIFIKADOREAK
ERE BAI!
645417665
xabier

ERAMATEKO!!!
-EGUNEKO MENUA-
-KARTA
ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

Otar-Goxo
El ikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

San Tomas lehiaketan parte hartzeko deialdia

Noaua!k baserritar guztiak gonbidatu nahi ditu

Herritarrek sagardo eta babarrun lehiaketan parte hartu ahal izango dute. Parte hartzeko azken eguna abenduak 11.



Abenduaren sari banaketa **20an**

Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produkturekin (olio, abriantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.

Sagardo lehiaketa:

Sagardoa etxean egiten duen usurbildarrek parte hartu ahal izango dute.

(Sagardotegiek ezin dute parte hartu lehiaketa honetan).

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.

Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izena emateko datak:

ABENDUAREN 9tik 11ra

- **ORDUTEGIA:** 8:00-13:00 eta 16:30-18:30

Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketetan, ondorengo sariak izango dira:

- 1. saria: 150€ + txapela
- 2. saria: 90€ + kopa
- 3. saria: 50€

Informazioa: Noaua!ko egoitzan eta 943 36 03 21 telefonoan



noaua

PS5

PS5

Zozketa



Nola izena-eman?

Deskargatu doako Urbil App-a eta zozketaren kupoia aktibatu. Laguntza behar baduzu, hurbildu zaitetz Bezeroarenganako Arreta Gunera.



Zozketaren oinarri legalak eta irabazlearen jakinarazpena (abenduaren 23an) www.urbil.es -en

BLOG



urbil.es